

MILA ESKER

Baso ilun hartan nengoen berriz ere, ilun zegoen, beldurgarri. Berriz ere soinu hura, betiko sentsazio bera. Pauso hots antzekoa, oin azpian kraskatzen diren hostoen soinua, eta ni mugitu ezinik, oihu egiteko ahalmenik gabe, eta hots hura gero eta gertuago, hurbilago. Konturatzerako, nire lepoan sentitzen nuen haren hatsa, arnas hots lasaia eta pausatua zen, baina ni, ezin mugitu. Nire bihotza lehertu beharrean zegoen, baina zera hark nire bizkarrean jarraitzen zuen, aurpegia eman gabe, eta mugitu gabe. Besoa luzatu zuen, ni ukitzeraino kasik, eta neuk begiak ireki ditut. Jada ez nago basoan, nire etxeko ohean baizik. Hala ere, ezin burutik atera irudi hura, basoan bakarrik. Baziren egun asko amets bera nuela, eta egunsenti piloa berdin jaikitzen nintzela, izerdi hotz hura lepoan, leihoa irekita eta biluzik ohe gainean. Gainera, egunak joan egunak etorri ez nuen inon alaitasun edo gozamenik sentitzen. Nonahi jende tristea, etxe ilunak eta zeru beltza besterik ez nuen ikusten. Sorbalda gainean izugarrizko pisua nuen, karga bat, haziz zihoana. Nindoan tokira nindoala burumakur nengoen ni eta nire ingurukoak. Agian nire irudipena zen, ziurrenik bai, baina halaxe ikusten nituen. Hark bizkar gaineko karga hura elikatu besterik ez zuen egiten. Lanean ez nengoen gustura, ez nuen gozotasunik bereizten jaten nuenean, ezta etxera bueltatzeko gogorik ere lana amaitzean, eta okerrera, hurrengo eguna berdina izango zela. Kalean, iluntzean, dena okerragoa zen, dena ilunagoa, itzal gehiago. Betidanik erakarri izan ninduten argidun errotuluek jada ez zidaten ezer esaten.

Beti bezala etxerako bidean nindoan, indarrik gabe. Errotuluei begira nindoan, baina gauero bezala, ezer ez. Ahots itzali bat entzutea iruditu zitzaidan, nire izena zioela, baina berdin zitzaidan. Behin eta berriz zioen, eta nik azkenerako neure buruaren inguruan biratu nintzen, nor zen ikusteko, baina ez zegoen inor. "Nire irudipena", pentsatu nuen, baina egun

batzuk geroago konturatuko nintzen ez zela inondik ere nik asmatu-rikoa, egiazkoa baizik.

Hurrengo egunak berdin igaro ziren, eta gauean ere nire izena behin eta berriz. Buelta emateko bezainbesteko errealak iruditzen zitzaidan aldietan hala egiten nuen, baina espero nuena, ezer ez. Azkenetarako, nire amesgaiztoa egia bihurtu zen, lanetik nentorren gau batean, kale hutsetan zehar nire etxerantz nindoala, nire izena berriz ere. Ez nuen atzera begiratu, ez nuen gogorik. Bat-batean, mugitu ezinik nengoen, eta pauso hotsak besterik ez nituen buruan. Arnas hotsa nire golkoan, "oraintxe jaikiko naiz ohean" pentsatu nuen, oker nenbilen, ez zen ametsa. Isiltasuna bat-batean, eta izaki hark, eskua luzatu zuen ni ukitzeko, geroz eta hurbilago zuen, baina ez zen gizaki bat, itxuraz bai, baina ez zuen gizakien berotasuna, hotza zegoen, oso hotza. Bat-batean, besoa heldu zidan, baina nik ez nuen kontakturik sumatu, hotza besterik ez, izugarritzko hotzikara nuen gorputz osoan, eta irudi batzuk etorri zitzaizkidan gogora, aspaldikoak ziren:

- *Doktore, doktore, oso larri dago, nik uste ez duela itxaropenik, baina saia gintezke!!!*
- *Bai, egin genezake, ekarri behar duguna lor dezagun, eta azkar, ez dugu denbora luzerik eta!*

Minutuak igarotzen doaz, baina nik ezin dut lortu, ezin dut. Izerditan blai nago, baina horrek berdin dio, ez du axola, bizia salbatu behar diot, ez dut beste aukerarik. Gutxinaka gutxinaka, bizia galduz doa, baina nik ezin dut ezer egin horren aurka, ez du itxaropenik, eta nik badakit, baina ez du garrantzirik, egin behar dut, egin dezaket, ezin dut orain etsi!

- EEEEEZZ !!!

Zer gertatu zait, ez dakit ezer. Ingurura begiratu nuen, jendea nuen inguruan, niri begira, munstro bati begira baileuden.

Negarrez ari nintzen eta ez nekien zergatik, ala bai? Ezin nuen jasan, korrika ateratzeko beharra nuen, nire etxean egoteko, eta alde egin nuen, ez nekien nora, baina korri egin nahi nuen, euripean, berdin zitzaidan nora joan, bustirik nengoen ala ez, pentsatu nahi nuen. Inkonszienteki etxe atarian nengoen, atea ireki eta sartu nintzen, baina beste mundu batean nengoen, beste garai batzuetan, ez han. Zergatik etorri ote zitzaidan burura gertakizun hura? Zergatik ez beste bat? Oraintxe gogoratzen naiz mementu hartaz, apenas hamar urte zituen mutiko bat zen, lagunekin jolasten edo antzeko zerbait egiten auto batek harrapatu zuena. Buruan dut oraindik zein atsekabetua geratu nintzen gertakari haren ondoren. Egunak eta egunak igaro nituen bururik altxatu ezinik, nire errua izan zela uste nuen, eta oraindik ere hala uste dut, zerbait gehiago egin izan banu, gehiago saiatu izan banintz, bizirik jarraituko zuela oraindik. Malkoak nituen berriz ere masailetan behera isuriz, oraindik ere gogoratzen naiz bai, ume harengatik utzi nuela medikuntza, beste zerbaitetan hasteko. Goiza zen, esnatu berri nintzen, baina ez nengoen ez izarditurik, leihoa ez zegoen irekia, zein arraroa. "Bah" pentsatuko duzue "ordurako ohituta egongo zen amets hartara, egoera horretan jaikitza", baina ez zen hain erraza. Gauero, lehenengoan bezainbesteko ikara sentitzen nuen, ezin ohitu horrelako gauza batera. Beste egun bat igaro zen, eta nahiz eta gau ona izan nuen, egunean zehar, samintasun bikoitza jasan behar izan nuen, ume hartaz pentsatzen, nahita ere ezin nuen burutik kendu, itsatsita nuen. Baina okerreana, gertatzear zegoen. Lanera bidean, berriz ere ahots hura, orain ez zen pertsona heldu batena, ume batena zen, "gaur gauean elkar ikusiko dugu" zihoen behin eta berriz. Atzera begiratzen nuenean ez nuen ezer ez ikusten, baina hostasun antzeko bat sentitzen nuen nire inguruan. Lanean nengoela ere ez nengoen lasai, zer esan nahi ote zuen "gauean elkar ikusiko dugu" rekin? Baina badaezpada ere, taxi bat hartu nuen, lehengo gauekoa gertatu ez zedin. Eta espero bezala, bidaia osoan ez zen ezer gertatu, eta etxera leher eginda iritsi nintzen, ezin nuen gehiago, "etxera

sartutakoan" pentsatu nuen "ohean etzan eta lo hartuko dut". Baina ez zen horrela izan, sartu bezain laster, hotzikara nuen gorputz osoan, lehengo gaueko sentsazio berbera, baina orain mugitu nintekeen, egongelara sartu nintzenean, ilun zegoen, eta inon baino hotzago. Besaulkirantz joan nintzen, baina bazen norbait han. Ez nekien nor, baina ez neukan beldurrik, ez nuen korri egin nahi, nor zen ikusi nahi nuen, baina ez zen beharrezkoa izan ni gerturatzea, bera gerturatu zen nigana. Orduantxe ikusi nuen zein zen, ume hura zen!!! Nire erruz hil zena, eta berak bazekien, bazekien hiltzen utzi nuela, aurpegian ageri zitzaion, eta ukitzeraino gerturatu zitzaidan, eta azkenean ukitu ninduen. Izugarrizko hotzikara nuen gorputzean zehar gora eta behera. Baina bat-batean ez nengoen nire egongelan, ilun zegoen guztia, airean nengoen, beheruntz nindoan, erortzen. Argiak piztu ziren, eritetxeko itxaron gelan nengoen, bi pertsonari, gizona bat eta emakumea bestea, begira, azalpenak ematen, kontsolatzen. Arraroa zen sentsazio hura, nik neure burua ikusten nuen, hirugarren pertsonan bezala, eta dena ulertzen nuen, orojakilea bainintzen. Pertsona haiek umearen gurasoak ziren, banekien zer pentsatzen zuten, eta baita nik ser sentitzen nuen, negarrez zeuden, baina ni, ni ez nengoen negarrez, bai oso saminduta, baina ez negarrez, ezin nuen negar egin, ez nekien zergatik. Gurasoen niganako gorrotoa, nazka sumatzen nuen, ez nuela ezertarako balio, horixe uste nuen nik ere neure buruaz, biziakin jolasten nuela. Berriro argiak itzali ziren, baina ez ziren berriro piztu, ahots bat hasi zen hizketan, umearen ahotsa. *"Kaixo" esan zuen "ikusten duzunez, ez zuten gehiegi estimatu zeure lana, ezta?"* Arrazoia zuela pentsatu nuen, berak esan bezala zela. Baina bazen gauza bat ume hark esan nahi zidana, edo gutxienez bazekiena, baina ez zuen esan, esan zuen bakarra *"ikusiko dugu elkar"* ilun eta triste bat izan zen. Egunak eta egunak ziren jada umea, edo irudipena ikusi nuela, baina ez zen poza sentitzen nuena, irrika baizik, haurra ikusteko irrika. Zer esan nahi ote zida jakiteko, baina esperantza galdu nuen, eta berriro lehenengo egunetan bezala, gertatu zena ahaztuta, edo ahaztu nahian, eta

kopetilun. Gauero lanetik atera, eta egun guztiko momentu bakarra zen noiz esperantza izpi bat nuen, egoera hura alda zedin, hobe izateko. Nire gogoa sumatuta bezala iluntasuna sortu zen, ez dakit nondik edo nola, hodei beltzak inguru guztietatik agertu ziren, baina ez nuen beldurrik, nire senak zioen oraingoan ez nuela gaizki pasako. Oraingo honetan ez zegoen hotzik, epela zegoen, oso xamurra, izugarri eroso. Berriz ere argitasuna sortu zen, ez nuen leku hura ezagutzen, baina pertsonak bai, bertan zeudenak, hildako mutikoaren gurasoak ziren, zeintzuk bihotzean sentitzen zuten egin zutena, hitz egitera eseri ziren, eta nik haien pentsamendua irakur nezakeen. Bazekiten ez zela medikuaren errua izan, ezinezkoa izan zen ezer egitea, eta damu ziren egin zutenaz eta esan zutenaz. Hitz egiten igaro zuten niri gutxieneko ordu pare bat iruditu zitzaidana, eta eritetxera joatea erabaki zuten, mediku hari barkamena eskatzera, baina han ez zuten inor aurkituko, nik banekien, ordurako joana nintzela. Gurasoen artean, mutikoa azaldu zen, baina haiek ezin zuten ikusi, nik bai. Mutikoak ama ukitu zuen, eta hau negarrez hasi zen, gero aitarengana hurbildu, eta honi ere gauza bera gertatu zitzaion. Hizketan hasi zitzaidan, *"oraindik zure errua zela uste al duzu? Pentsatu besterik ez duzu, nirearen aurretik zenbat bizi salbatu zenituen, hori bakarrik, eta ikusiko duzu zein on egin diguzun denoi, ume horiei ez ezik haien familiei ere"*. Harrituta geratu nintzen, besterik gabe, etxean nintzen berriro, nire etxean. Ez nuen ulertzen zer gertatu zitzaidan, zergatik esan ote zidan hura ume hark. Zerutik eroria bezala, etxeko telefonora hots egin zidaten. Medikua nintzeneko lagun bat zen, hura ere halaxe baitzen.

"Kaixo lagun! ! ! Berri oso garrantzitsua emateko deitu dizut, hemen, eritetxean, jende gehiegi dugu, eta badakizu, toki gutxiegi. Begira, esan nahi nizuna da, hemendik banoala, beste toki batera noa, hemengo lana utzita, ospitale berri bat sortuko dut, aizu, badakit hau utzi zenuela, ezta? Baina gauza bat proposatu nahi diot inoiz ezagutu dudan mediku onenari, eta

bihotz onegia duenari, etor zaitez nirekin, bion artean osatuko dugu, imagina ezazu, ospitale publiko batean, zu eta ni, beno, hori hasiera batean, gero jende gehiago edukiko genuke, baina ba al dakizu zenbat eta zenbat bizitza salba genitzakeen? Eta begira, nik uste badakizula zuk ez zenuela errua izan, badakizu zertaz ari naizen. Beno, pentsatzen utziko dizut. Garbi duzunean eman ezazu bueltatxo bat zure lantoki zaharretik, ongi? Beno, ikusi arte."

Segituan jantzi nintzen, ahal nuen bezala, korrika batean irten nintzen handik, eta taxi bat eskatu nuen. "Ziztu bizian, mesedez" iritsi bezain pronto atea ireki nuen eta hantxe zegoen, nire aurrean, izugarrizko eraikina, hainbat eta hainbat urtean beldur izan niona, baina orain, nire etxea zela sentitu nuena. Sartu nintzenean, hantxe zen, nire bizi osoan izan dudan lagunik onena, bere begietan esperantza ikusten zen, eta ni ikusi bezain azkar, baieztapena. Inoiz jaso dudan besarkada bero eta lasaigarriena eman zidan, eta nik berdin egin nuen.

Bost urte igaro dira azken hori gertatu zenetik, eta, esan nezake, nire bizitzako erabakirik miragarriena izan zela. Orain, Jack eta ni, Ipar Amerikako ospitale publiko famatuenean gaude, ESPERANTZAn, eta noski ume haren bisitak eduki ditut, eta dagoeneko joan zait lepoko pisu hura, eta biziari kolore ugari ikusten dizkiot. Ez dakizue zenbaterainoko konfiantza eta alaitasuna ematen duen ume bati bizi berri bat ematean begiratzen dizun aurpegiaren irudi hura zeure buruan edukitzeak, haren eskutxoa zeurearen gainean jartzen dizunean, eta irribarre bat aurpegian duela esaten dizunean "MILA ESKER".